


# SL-Gi 5001

## Algorri

### Altxor geologikoa

*1,9 Km / 35 min*

**NATURA PARKEETAKO IBILBIDE SAREA**

Gipuzkoako Natura Parke bakoitzak bere ibilbide sarea du. Homologatutako eta ondo seinaleztatutako bide hauen bitartez babesgune bakoitzeko intereseko puntu nagusietara gerturatzeko aukera eskaintzen da. Modu horretan natura baliabideen inguruan ezagutza eta errespetua sustatuz. Gipuzkoako Natura Parke ezberdinak, berriz, DSS2016 GRSAREAren bitartez saretuak daude.

**RED DE SENDEROS DE LOS PARQUES NATURALES**

Cada Parque Natural de Gipuzkoa alberga su propia red de senderos. A través de estos senderos, homologados y bien balizados, se ofrece la oportunidad de aproximarse a los puntos de interés de cada zona protegida. Promoviendo, de este modo, el conocimiento y el respeto por los recursos naturales. Los distintos Parque Naturales de Gipuzkoa, en cambio, están entretejidos a través de la DSS2016 GRSAREA.




## Profila
Perfil

Luzera | Longitud
**1,9 km**

Desnibela | Desnivel
**+43 m / -38 m**

## SL-Gi 5001

**Algorri** Altxor geologikoa

Zumaiako flyscha liburu geologiko bat da, 50 milioi urte baino gehiagoko historia kontatzen duena. Algorri ibilbidea San Telmo ermitatik abiatu eta, ibili errazean, historia luze honen atal mamitsuenean barneratzen da: Paleozenoa. Han aurkituko ditugu dinosaurioak desagertu ziren garaien aztarnak edo aspaldiko aldaketa klimatikoenak. Denboran zehar atzera egingo dugu urrats bakoitzean, iraganaren detektibe izango gara eta planetaren etorkizunari buruzko gogoetak piztuko zaizkigu.

El Flysch de Zumaia es un libro geológico que contiene más de 50 millones de años de historia. El sendero Algorri parte de la ermita de San Telmo para recorrer, en un paseo fácil, el capítulo más intenso de esta gran historia: el paleoceno. Lo recorreremos como detectives del pasado, descubriendo episodios tan apasionantes como la extinción de los dinosaurios o los diversos cambios climáticos que se han registrado en la historia geológica. Cada paso que demos nos llevará atrás en el tiempo y nos permitirá conocer algunos eventos cruciales de la historia de nuestro planeta.

### Interes puntuak | Puntos de interés

a



ALGORRIKO ETA PIKOTEKO LABARRAK: Mareen gora-beheren, olatuen indarraren eta haizearen ondorioz, labarrek aukera gutxi eskaintzen dituzte bertan landaretza ezar dadin. Uraren eraginetik zenbat eta urrutiago, aldiz, errazagoa da florak bizitzeko behar duen lurra aurkitzea arrakaletan, erlaitzetan eta ordeketan. Animaliei dagokienez, berriz, labarpean dagoen marearteko zabalgunea oso leku aproposa da hainbat itsas espezierentzat.

ACANTILADOS DE ALGORRI Y PIKOTE : Debido a las subidas y bajadas de las mareas, la fuerza de las olas y el viento, los acantilados ofrecen pocos espacios para la fijación de la flora. Cuanto más lejos de los efectos del agua, en cambio, la flora tiene mayor facilidad para encontrar el sustrato necesario en grietas, cornisas y llanuras. En relación a la fauna, por otro lado, la rasa intermareal situada bajo los acantilados es un lugar adecuado para las especies marinas.

b



ALGORRIKO KRETAZEO/TERTZIARIO MUGA: Kretazikoko iraungipen handiaren garaia (65,5 miloi urte) argi ageri da Algorrin, bertan ikus daitekeen geruza beltz finaren (K/T muga) bitartez. Orduan, espezie fosilen %75 desagertu ziren. Gainera, geruza ilun horrek beste anomalia batzuk ere baditu, besteak beste, iridioa, nikela eta kedarrean aberatsak diren espinelak. Horiek guztiek, zerikusia dute Yucatan penintsulan talka egin zuen meteorito handiarekin.

LÍMITE CRETÁCICO/TERCIARIO DE ALGORRI: En Algorri se aprecia fácilmente el periodo de la gran extinción del Cretácico (65,5 millones de años), mediante la fina capa negra (límite K/T) que allí existe. En esa época desaparecieron el 75% de las especies fósiles. Además, esa capa oscura contiene otras anomalías, entre ellas, iridio, níquel y espínelas ricas en quedar. Todos ellos están relacionados con el gran meteorito que impacto en la península de Yucatán.

c



ITZURUNGO HONDARTZA: Zumaiako hondartza honek 270 metroko luzera du eta, bataz besteko zabalera 75 metrokoa du. Hainbat alderdiregatik da ezaguna: bertan ageri diren estratuengatik erreferente delako mundu mailan eta, horregatik, bi urrezko iltze eman dizkiotelako; baita ere, itsas kirolak egiteko leku aproposa delako, batez ere bodyboarda; eta, zenbait arte ekimen aurrera eramateko erabilia izan delako.

PLAYA DE ITZURUN: Esta playa de Zumaia tiene una longitud de 270 metros y una anchura media de 75 metros. Es conocida por varias razones: porque es referente a nivel mundial por los estratos que allí se hallan, razón por la que ha recibido dos clavos de oro; también, porque es un lugar apropiado para los deportes náuticos, sobre todo el bodyboard; y, porque ha sido escenario de diferentes propuestas artísticas.

d



ITZURUNGO EOZENOAREN HARRESI HANDIA: Itzurungo eozenoko materialaren artean fosilen aztarnak (iknofolisak) aurki daitezke. Iknofosilak arroaren itsas hondoetako jarduera biologikoaren aztarnak dira. Normalean, zenbait organismok utzitako narraste-, elikatze- edo babes-aztarnak izaten dira. Aztarna horiek ingurumenarekin lotutako egoeren berri ematen dute, hala nola oxigeno-mailarena, nutrienteena, uhertasunarena edota ur-lasterrena.

LA GRAN MURALLA DEL EOCENO DE ITZURUN: Los icnofósiles son huellas de actividad biológica en los fondos marinos de la cuenca. Habitualmente se trata de huellas de reptación, alimentación o refugio dejados por diferentes organismos. Estas huellas nos revelan circunstancias ambientales como el nivel de oxígeno, los nutrientes, la turbidez y/o las corrientes.

## MIDE

| Ingurunea Medio | Ibilbidea Itinerario | Desplazamendua Desplazamiento | Ahalegina Esfuerzo | MIDE ordutegia Horario MIDE |
| --- | --- | --- | --- | --- |
| 2 | 1 | 1 | 1 | 35 min |
| **Arrisku-faktore bat baino gehiago dago** Hay más de un factor de riesgo | **Ondo zehazturiko bide eta bidegurutzeak** Caminos y cruces bien definidos | **Zoru laua** Marcha por superficie lisa | **Ordu bete azpiko ibilaldi jarraia** Hasta una hora de marcha efectiva | (( 112 )) SOS DEIAK |

**+ info MIDE**
www.mide.montanasegura.com

## Bide-markak
Señalización

| Ibilbidearen jarraipena | Norabide aldaketa | Norabide okerra |
| --- | --- | --- |
| Continuidad de sendero | Cambio de dirección | Dirección errónea |

## + INFO

**Praktika onen dekalogoa**
Decálogo de buenas prácticas

**www.gipuzkoanatura.eus**
**Trackak eskuragarri**
Tracks disponibles

## Jarraitzeko arauak | Recomendaciones a tener en cuenta

- **Txakurrak beti lotuta eraman.** Los perros deberán ir atados.
- **Saiatu mendira bakarrik ez joaten.** Intenta no ir nunca solo al monte.
- **Abeltzaintza estentsiboko eremu batean zaude. Bidean aurkitzen dituzun langak, txabolen ateak eta abar ez utzi zabalik.** Te encuentras en una zona de uso ganadero extensivo. Cierra las barreras, puertas de cabaña, etc. que te encuentres por el campo.
- **Ez ezazu zaborrik lurperatu edo bota.** No abandones ni entierres la basura.
- **Ez egin surik eta ez bota piztutako zigarrorik.** No hagas fuego ni abandones cigarrillos encendidos.
- **Animaliak larratzen** Animales pastando

** Gipuzkoako Mendien urriaren 20ko 7/2006 FORU ARAUA.*

## Legenda
Leyenda

- **Ibilbide hasiera** Inicio de sendero
- **Ikuspegi panoramikoa** Vista panorámica

arazi
Zumaiako Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Gipuzkoako Mendizale Federazioa